

Saneamendu eta ur horniketa lanak, bukatuta

VILLABONA-ASTEASU ▶ Prest dira bi herrietako ur biltegi berriak eta Asteasuko saneamendu lanak

IBIUR ▶ Biltegiak martxan jartzeko Espainiako Gobernuak Ibiur presa noiz egingo duen zain daude ▶ 5

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Finalerdietara pasatu dira Aranalde, Gabirondo, Goikoetxea eta Alkorta ▶ 7

ALTZO ▶



N. URBIZU

Eskola berria, erabiltzeko prest

Bi solairu ditu, eta 760 metro koadro; datorren ikasturtean estreinatuko dute ▶ 6

LEITZA ▶

Urrutia harri-jasotzailea bigarren Nafarroako Txapelketan ▶ 7



N. LATABURU

OLATZ PEON, ONINTZA LASA ETA SILVANA OSTIZA ▶ AHOTSAK EKIMENA

«Emakumeon ikuspegitik bultzada eman nahi diogu bizi dugun bake prozesuari»

Pentsamendu eta ideologia ezberdinetako emakumeak batzen ditu Ahotsak ekimenak; bihar aurkeztuko dute jendaurrean, Tolosan ▶ 2,3

ONINTZA LASA, OLATZ PEON, SILVANA OSTIZA ▶ AHOTSAK

«Emakumeon ikuspegitik bultzada eman nahi diogu bake prozesuari»

Pentsamendu eta ideologia ezberdinetako emakumeak bateratzen dituen Ahotsak ekimeneko Lasa, Peon eta Ostiza sustatzaileek «herritarren parte-hartzearen garrantzia» azpimarratu dute

I. TERRADILLOS - N. LATABURU

Onintza Lasa, Olatz Peon eta Silvana Ostiza Bakearen Aldeko Emakumeen Ahotsak taldeko kide eta ordezkari dira. Bake prozesuaren bultzatzaile moduan Ahotsak-ek egingo duen lana eta taldearen nondik norakoak azaldu dizkiote HITZARI, bai eta bihar, 20:00etan, Kultur Etxean egingo duten aurkezpena ere.

Zer azalduko du Ahotsak-ek Tolosako aurkezpenean?

Onintza Lasa. Ahotsak zertan datzan herri mailara zabaldu nahi da, hau da, zer filosofiarekin egin den, zeintzuk diren bere oinarriak; azken batean gauza berri bat da eta hori iragartzea dugu helburu. Aurkezpenarekin batera dokumentuari atxikimendua emateko aukera izango da. Ondoren, bil-tzen diren artean herri mailako talde edo plataforma bat osatzea da asmoa, denak egin behar baitugu bat hemen prozesuarekin eta horretarako konpromiso pertsonala behar da.

Nori izango da zuzendua?

Silvana Ostiza. Tolosaldea mailan, guztioi. Deialdi pertsonala egin diegu esparru guztietako emakumei, sektore ezberdinak, ideologia ezberdinak, talde politiko ezberdinak, lanbide ezberdinak... Gure helburua emakumei helaraz-



N. LATABURU

tea da, hain zuzen ere, ekimen hau emakumeok daramagulako aurrera. Dokumentua eta plataforma zertan den aurkeztu eta, ondoren, beraiek nolabait ere inplikatzeko nahi dugu, prozesua bultzatzeko.

Emakumeak soilik daude gonbidatuta?

Ostiza. Gonbidapena emakumei egin badiegu ere, ez du esan nahi gizonezkoak ezin dutenik etorri; dena den, horri ez diogu garrantzi gehiegi eman nahi, bestela mamira joan beharreak gaiari bueltak ematen zaizkio.

Lasa. Tonoa ez da baztertzai-

lea eta gizonezkoen inplikazioa ere behar da. Emakumeen gauza izan da eta emakumeak dira lehenik hartzaile.

Zenbaterainoko garrantzia du?

Ostiza. Batzuetan ez gara kon-turatzen ekimen honek duen garrantziaz. Lehen aldiz Euskal

Herrian oso ezberdinak garen emakumeak, oso ideologia ezberdinetakoak, oso sentimendu ezberdinetakoak, bizitzeko era ezberdinetakoak, behingoz desberdintzen gaituena albo batera utzi dugu eta elkarrekin egin dezakeguna hartu dugu zutabe bezala eta horren inguruan bildu gara, bilduko gara eta lanean hasiko gara. Oso garrantzitsua da hori.

Edonork har al dezake parte?

Lasa. Alderdi politikoan eta ideologiaren gainetik parte-hartzeak pertsonala izan behar du, guzti honen atzean dauden sakotasuneko gaiak gizarte guztia hartzen duela aintzat hartuz. Dokumentuarekin bat egiten duen orok bere atxikimendu pertsonala egiteko aukera dauka.

Babes handia jaso duzue.

Lasa. Bai, dokumentu honekin alderdi guztiek bat egin dute, eskuin espainiarra eta frantziarra izan ezik. Babesa eman dutenak oso pertsona ezberdinak izan dira; izan ere, era guztietako ideologiek nahi dute konponbide bat. Atxikimendua ere lortu dira. Ziur nago etzi [bihar] bileran izugarria izango dela atxikimendua eman nahi duen kopurua.

Nola sortu zen ekimena?

Lasa. Oso inkomunikazio handia zegoen garai batean hasi ginen lanean, non oso zaila zen edozein adostasun maila lor-

Ahotsak ekimenaren aurkezpena, bihar, Tolosan

Ahotsak ekimena bihar helduko da Tolosara eta bertan aurkeztuko dute alor ezberdinetako emakumeen artean adosturiko dokumentua. Halaber, atxikimendua emateko aukera eskainiko dute eta eskualde mailan plataforma osatzeko lehen urratsak emango dituzte. Hizlari lanetan Nekane Alzelai, Jone Goirizelaia, Gema Zabaleta, Kontxi Bilbao, Aintzane Ezenarro eta Gema Gonzalez de Txabarri ariko dira, 20:00etatik aurrera, Tolosako Kultur Etxean.

Haiekin batera, eskualde mailan esanguratsuak diren emakumeak gonbidatu dituzte. Alor ezberdinak bildu nahi

izan dituzte, alderdi politiko, kirolari, kultura nahiz kazetaritza alorrekoak. Haiekin batera, herritar guztiak gonbidatu nahi izan dituzte eta «dei bereziki» luzatu diete bertan parte hartzeko garrantzia azpimarratu.

Tolosan lehen aldiz izango dira, Euskal Herriko herri ezberdinetan izan ondoren. Hain zuzen gaur Urretxun izango dira eta Elgoibar, Iruñea eta Gasteiz ere bisitatu dituzte, besteak beste. Jendearen parte-hartzea espero dute eta bereziki, Kultur Etxeko aretoa «emakumez gainezka topatu nahi dute».

Bihar aurkeztuko duten do-

kumentua apirilaren 8an adostu zuten alderdi ezberdinetako emakumeek. Dena den, edonork eman dezaiokoe atxikimena. Agiria sinatu dutenek (ideologia, tradizio eta mentimendu ezberdinak ditugun emakumeak gara). Hala, banatzen dituen «alde batera utzi» eta batzen dituenetik abiatuta, modu pertsonalean, «bake eta adiskidetzaren bila urratsak» arakatu nahi dituzte. Izan ere, emakumeok bakearen aldeko «eragile aktibo» izan behar dutela uste dute. Hiru premisetan oinarritzen den «etapa berri bab» irekitzeko aukera ahalbideratu nahi dute. Batetik, bakea erdieste

eskakizun kolektiboa eta lehenitasun politikoa dela diote. Bestetik, proiektu politiko guztiak defenda daitezkeela eta defendatu behar direla uste dute, «bat bera ere inposatu gabe».

Azkenik, euskal gizarteak egungo marko juridiko-politiko «eraldatu, aldatu edo mantzentzeko» borondatea badu, beharrezkoak diren berme demokratikoak ezartzeko konpromisoa hartzea euskal gizarteak erabakitakoa errespetatua eta gauzatua izan da-din.

Bada, honen guztiaren gainean jardungo dute biharko aurkezpenan. ◀



Tolosako Udala

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrek, 2006ko ekainaren 26an egindako bilkuran, IL.1 "Laskorain Goikoa" eremuko Birpartzelatze Ilkidazio Proiektu zuzenduari hasierako onespena eman zion.

Proiektua, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, hamabost lanegun (iragarki honen azken argitaratzea egin eta bihararainetara kontatzen hasita) jendearean jarrita egongo da, Hirigintza Gestio 129. Eta 107. artikuluek, eta Eusko Legebiltzararen Plangintza Tresnen eta Hirigintza Gestioaren tramitazioari buruzko ekainaren 30eko 17/94 Legearen 9.ak xedatutako arabera.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berrian, Diario Vascoan, eta Hitzan argitaratuko da.

Espedientea, inork aztertu nahi badu, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean kokatzen Hirigintza Bulegoan egongo da, aipameneko epean. Alegazio edo erreklamazioak alkateari zuzendu behar zaizkio eta Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Tolosan, 2006ko uztailaren 4an.
ALKATEA

tzea. Harreman pertsonalak landu ostean sortu da, azkenik, apirilean aurkeztutako dokumentua.

Nola eratu zen dokumentua?
Ostiza. Elkartu eta hizketan hasi ginen. Inoiz baino gehiago hitz egin dugu. Enpatia handia behar da horretarako, izan ere, bakoitza bere esperientziatik dator.

Olatz Peon. Harreman pertsonalak jorratzea oso garrantzitsua da. Oso ezberdinak gara eta batzuekin besteekin baino adostasun gehiago dugu. Badaude beste alderdi batzuk bere mugara iritsi direnak, beste batzuentzat, aldiz, oinarritzko premisak baino ez dira.

Urrutira iristeko asmoa al duzue?
Lasa. Nik ez dakit noraino iritsiko den hau, baina behin harreman bat osatzen denean zaila izaten da hori etetea. Prozesuan protagonismoa dugula sinesten dugulako hartu dugu ekimena gogotsu eta gure hondar haretxo jarri nahi dugu. Gauzak hitz eginez egin daitezkeela ikusten bada oso urrun iritsi daiteke, eta denentzat lezio bat izan daiteke.

Ostiza. Oinarri sendoak jarrita dauden arren, guztia idazteko dago oraindik. Noraino iritsiko garen historiak esango du.

Zergatik heldu da orain Aho-tsak ekimena?

Ostiza. Noski, gatazka konpontzeko prozesuaren inguruan sortu da Aho-tsak, eta hori da gakoa. Zergatik ez den lehenago sortu? Ziurrenik momentu honetan ez geundelako. Momentu bakoitzak tresna berezi batzuk exijitzen ditu. Hau oso tresna berezia eta kreatiboa da, ohikoetatik oso desberdina dena. Horrexegatik da beharrezkoa.

Peon. Oso garrantzitsua da bide berriak irekitzea, bake prozesuaren baitan. Bizi garen uneak eskatzen duen bultzada izan nahi dugu. Esperientziak esaten du emakumearen papera oso garrantzitsua izan dela gatazka askotan.

Lasa. Orain argitaratu bada ere, duela 3-4 urte sortu zen ekimena. Erraz ahazten dugun



N. LATABURU

OLATZ PEON
SUSTATZAILEA

«Gure funtzioa sarea osatzea da eta helburua herritarren inplikazioa nolabait lortu ahal izatea da»

arren, garai haietan ez zen hitz egiten alderdien artean. Une hauetan, ordea, baldintza egokiki ditugu hitz egiteko.

Zer moduzko harrera izan du orain arte ekimenak herri mailan?
Peon. Jendeak oso ondo hartu du, eta berehala izugarritzko in-

ONINTZA LASA
SUSTATZAILEA

«Gauzak hitz eginez egin daitezkeela erakusten badugu oso urrutira hel gaitezke eta guztiontzat lezioa izango da»

teresa piztu dela igarri dugu. Emakumeek horrelako zerbait abian jartzeko garaia zela bezalakoak entzuten dira kalean. Oso pozik gaude orain artean izan duen harrerarekin.

Barne antolaketan, zer funtzio betetzen duzue zuek?
Ostiza. Ez dugu funtzio berezi-

SILVANA OSTIZA
SUSTATZAILEA

«Ekimena gatazka konpontzeko prozesuaren inguruan sortu da; horrexegatik da beharrezkoa»

rik, izan ere, Aho-tsak-en denak berdinak gara. Orokorrean bakoitzak berea landu behar du. Gure kasuan, eskualde mailako lana egitea egokitu zaigu; hau da, gure ingurukoei mezua zabaltzea.

Peon. Sare bat osatzea da gure funtzioa. Helburua, halaber,

herritarren inplikazioa lortzea da.

Zenbaterik osatzen dute Aho-tsak herri mailan?

Lasa. Gure ideia ahalik eta jende gehien sartuta egotea da. Horrexegatik oso ona izango da asteazkenean guztiok topatzeko aukera izatea.

Ostiza. Ez dago oraindik Aho-tsak osatuta eskualdean. Asteazkeneko aurkezpenetik aurrera aztertu beharko da plataformaren osaketa.

Jende asko espero al duzue Tolosan?

Peon. Beldurra badut, egia esan, opor garaia ez baita egokiena. Dena den, oso harrera ona espero dugu.

► hiltzerriak
► urteurrenak
► eskertzak


Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio berregatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hiltzerria ►

Juan Gomez Granado



Eskerrik asko elkarrekin pasatutako une goxoengatik

IBAIGOk lagunak

AZPEITIA, 2006ko uztailaren 11

hiltzerria ►

Fernando Muniozguren




Ez adiorik.

Zarauzko Arrano Kabia

ZARAUZ, 2006ko uztailaren 11

ASTEASU ▶ KIROLA

Eskualdekoak garaile Santamañan

Patxi Urizarrek eta Nerea Amilibiak irabazi dute VI. Kros Igoera

ESTI EZEIZA

Santamaña auzoko festen barruan, urtero legez, igandean jokatu zen Kros Igoera. Zazpi-garren edizio honetan, zazpi kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten parte-hartzaileek. Hala, Asteasuko plazatik atera, herrian zehar bi itzuli eman, eta Santamaña igotzeari ekin zioten korrikalariak.

Hezetasuna eta bero sargoria nagusi izan arren, 89 pertsonak hartu zuten parte igandeko proban, eta denek amaitu zuten lasterketa. Gizonetako artean, Patxi Urizar billabonatarra gailendu zen, eta nesketan, Nerea Amilibia zizurkildarra. Hauei 150 euroko saria eman zieten antolatzaileek. Mutiletan, ondorengo postuak, Josu Arregi eta Juan Mari Garinentzat izan ziren, hurrenez hurren. Eta emakumeetan, Maria Jesus Silvano eta Idoia Ezeizarentzat izan ziren bigarren eta hirugarren postuak. Hauek ere ez ziren esku hutsik joan etxera, 90 eta 60 eurotako sariak eman baitzizkieten. Bestalde, laugarrenetik seigarrena bitarte geratu zirenei 15 euro eman zizkieten, eta hortik hargarrena artekoak, 10.

Izaskun Olano asteasuarraren esanetan, «maila ona zegoen korrikalarien artean». Bera lehenengo emakume asteasuarra izan zen helmugara iristen, eta horregatik sari berezi bat eman zioten. Bigarren urtez hartu du parte lasterketa honetan, eta «joan den urtean baino hobeto ikusi» omen zuten bere burua. Hala ere, hasiera batean, ibilbide guztia korrika egi-

SAILKAPENA ▶

GIZONEZKOAK

Izena	Denbora
1. Patxi Urizar	27'02"
2. Josu Arregi	27'19"
3. Juan Mari Garin	27'27"
4. Iñaki Lopetegui	28'17"
5. Jon Garraus	28'37"
6. Mikel Albeniz	28'48"
7. Enekoitz Aizpuru	28'51"
8. Asier Urdanpilleta	28'59"
9. Eduardo Casado	29'39"
10. Hassan Ait	29'46"

EMAKUMEZKOAK

Izena	Denbora
1. Nerea Amilibia	34'02"
2. Maria Jesus Silvano	37'57"
3. Idoia Ezeiza	38'41"
4. Josune Murua	39'24"
5. Ainara Toledo	40'06"
6. Ainhoa Mendia	40'23"
7. Josune Zabala	40'40"
8. Uxune Tena	41'43"
9. Izaskun Olano	43'16"
10. Idoia Esnaola	43'47"

LEHEN ASTEASUARRAK

Izena	Denbora
1. Mutiletan: Pello Izagirre	31'10"
2. Nesketan: Izaskun Olano	43'16"

IZASKUN OLANO

LEHENENGO ASTEASUARRA

«Ongi iritsi nintzen, baina hezetasuna eta eguraldia zela eta, uste baino denbora okerragoa egin nuen»

teko asmoa bazuen ere, baso inguruko bidea oinez egin behar izan zuen.



Hasiera. Asteasuko plazatik abiatu ziren korrikalariak, zazpi kilometroko ibilbidea egiteko. Denera, 89 lagunek eman zuten izena, eta denek amaitu zuten lasterketa. MADDI SOROA



Mutilen podiuma. Patxi Urizarrek (erdian) irabazi zuen lasterketa, bigarren Josu Arregi izan zen (eskuinean), eta hirugarren Juan Mari Garin. M. S.



Nesketan, irabazle. Emakumeetan, Nerea Amilibia zizurkildarra iritsi zen lehenengo postuan helmugara. MADDI SOROA



Hamaiketakoa. Lasterketaren ondoren, Santamañan bertan parte-hartzaileen artean sariak zozketatu zituzten, eta hamaiketakoa ere eskaini zuten. MADDI SOROA

iragarki laburrak ▶



Leaburu bidean. 600 m2ko pabiloia, bi solairuetan banatua, 2.500 m2ko

zelaiarekin.

Anoeta. Marban dagoen taberna-jatebidea alokairuan. Informazio pertsonala.

Alkiza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra salgai. 4 solairu.

Oso bista onak.

Amezketak, Belautza, Gabiria, Hernialde, Ibarra eta Villabona-Zizurkil. Hainbat etxe bifamiliarrak, adosatu eta eraikitzeko partzela.

Amezketak. Bi logelarekin.

Ezin hobeto. Nahiko eraikuntza berria. Berokuntza, trasteleku eta igogailuarekin. 207.380 euro.

Anoeta. San Juan. Eraikuntza nahiko berriko duplexa. Garaje itxiarekin.

Ibarra. Euskalerrria kalea.

Oso egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela.

Berokuntzarekin. 250.620 euro.

Ikaztegieta. Eraikuntza nahiko berriko 170m2ko duplexa.

Tolosa. Erdialdean eraikuntza berriko etxebizitzak. 3 eta 4 logelekin, terrazak. Sukalde ekipatuak. Garajeekin.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza 168.285 eurotik aurrera.

Tolosa. San Esteban. 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela. Sartzeko moduan. 198.335 euro.

Tolosa. Siervas de Jesus. 3 logela, egongela, sukaldia, eta bi bainugela.

Tolosa. Zumalakarregi. 2 etxebizitza. 92

eta 97 m2, 2 eta 3 logela, sukaldie-egongela, 2 bainugela. Oso bista ederrak. Guztiz berriak. Estreinatzeko.

Tolosa. Araba etorbidea. 4 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela, 25 m2ko trasteleku eta garajea.

Tolosa. Trinkete. 3 logela, sukaldia, egongela, bainugela eta trastelekuak.

Tolosa. Garaje itxia aukeran. 346.660 euro.

Villabona. Kale berria. Eraikuntza berrian pisu altua. 100 m2. Garaje itxia.

AZPIEGITURAK ▶



Antonio Alberdi, Bakartxo Tejeria eta Luis Mari Oyarbide, Villabonako udaletxean; Villabonako urtegi berria, Arratzainen, aurrean aparkaleku berria duela. I. GARCIA

Ibiur noiz bukatu zain

Villabonako ur biltegi berria eta Asteasuko ur biltegi berria eta saneamenduaren lanak amaitu dituzte

IMANOL GARCIA

Udaletako eta Foru Aldundiko agintariek Asteasun eta Villabonako ur horniketaren eta saneamenduan egindako azken lanen berri eman zuten atzo. Villabonako ur biltegi berriaren eta Asteasuko ur biltegi berriaren eta saneamenduaren lanak bukatu dira. Bi ur biltegiak martxan jartzeko, ordea, Ibiur presa noiz egingo den zain daude. Espainiako Gobernaren esku daude Baliarrainen egingo den azpiegitura horren obrak. Atzoko aurkezpenean Luis Mari Oyarbide Garapen Iraunkorreko Foru diputatuak azaldu zuenez, «2008. urte hasierarako bukatuta egongo dela esan dute».

Bi aurkezpen ekitaldi egin zituzten atzo, bata Villabonako eta bestea Asteasun. Bietan izan ziren Luis Mari Oyarbide eta Antonio Alberdi. Obra Hidraulikoetako zuzendari nagusia, hiru obren zehaztasunak emanaz. Villabonako bertako alkate Bakartxo Tejeria izan zuten ondoan, eta Asteasun, Iñaki Amenabar alkateaz gain, Antonio Arteaga eta Mertxe Irazusta zirenetzat.

Bi ur biltegi berriek, esan bezala, Ibiur presatik jasoko dituzte urak. Urrik jaso ezean, 24 ordutarako ura ziurtatzeko moduko edukiera dute. Horrez gain, aurreikusita dago ur kopuru bat sute baten aurrean suhiltzaileek hala behar izanez gero. Bai biltegiak bai saneamendua Foru Aldundiak eta Ur Partzuergoak finantzatu dute erdibana.

Ibiurko presa amaitu arte, bai Villabonako eta bai Asteasunko ur biltegi zaharrek jarrai-



Ezkerretik eskuinera, Antonio Alberdi, Luis Mari Oyarbide, Mertxe Irazusta, Iñaki Amenabar eta Antonio Arteaga, atzo, Asteasuko ur biltegi berriaren aurrean. I. GARCIA

tuko dituzte hornitzen herriaren beharrak. Antonio Alberdik azaldu zuenez, beste azpiegitura batzuk ere egingo dituzte Tolosaldean Ibiurko presa ireki bitartean. Hernialden hornikuntza eta saneamendua burutuko dira. Tolosako Montezkue auzoko ur biltegi hornikuntza egingo dute, Belauntzara bezala. Orendain, Abaltzisketa eta Baliarrain herrietan saneamendua egingo dute.

Ur araztegia, bidean

Egun Tolosaldeko ur zikin guztiak Ori ibaira isurtzen dira. Ez dago araztegi urak tratatzeko. Egoera hori konpontzeko Adunan araztegi bat eraikiko dute. Oraindik proiektua buru-

tzeko baimen baten zain badaude ere, berehala jasoko duela espero du Foru Aldundiak, eta irailean lanak esleitzeko asmoa dute. 2008rako martxan egotea espero dute.

Tolosaldean saneamendua azpiegiturak egingo dituzte, hondakin-ur guztiak jaso eta Ori ibaira isuri aurretik Adunako araztegitik igarotzeko. Plangintza horren baitan koka-

tzen da ere Asteasun egindako saneamendu sistema. Ur biltegiak baino arazo gehiago sortu ditu biztanleen eguneroko bizitzan, herriguneari egin behar izan diren lanengatik.

DATUAK ▶

VILLABONAKO UR BILTEGIA

Edukiera. 3.600 metro kubiko hartzen ditu.
Kokapena. Arratzainen, futbol zelaiaren ondoan.
Aurrekontua. 1,7 milioi euro.

ASTEASUKO UR BILTEGIA

Edukiera. 1.300 metro kubiko hartzen ditu.
Kokapena. Hilerriaren ondoan dago, egungo ur biltegia baino pixka bat gorago.
Aurrekontua. 650.000 euro.

ASTEASUKO SANEAMENDUA

Adar nagusia. Asteasu ibaiaren haranetik doa eta 3.700 metro ditu.
Aurrekontua. 3,5 milioi euro, adar nagusia zein lan osagarriak kontuan hartuta.

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

ALEGIA ▶

Festetako zikiro
jaterako txartelak
salgai daude

Alegiko herriko plazan zikiro jatea antolatuta dute, ostiralerako. 21:00etan hasiko da, eta txartelak salgai daude Hilario Berrin, Etxeberria, Ixkina, Jubilatuen tabernan eta Kultur Etxean, 15 euroren truke. 175 pertsonentzako lekua egokitu dute bertan. Txartelak lehenbailehen erostea komeni da, antolatzailerik lana errazteko.

AMEZKETA ▶

Larunbat gaueko
pilota partidaren
emaitzak

Joxean Tolosa Pilota Txapelketako lehenengo partidak jokatu dira asteburu honetan Amezketa frontoian. Larunbat gaueko emaitzak hauek izan dira: kadeteen mailan Goienetek 18, Gaztañagak 15. Gazteen partidaren Garmendia eta Azpitarte izan ziren, eta 1-18ko emaitzarekin bukatu zen. Hirugarrenik, Azpiazu eta Martinez ari ziren nagusien mailan, eta 18-7 amaitu zen lehia.

ALTZO ▶

Iruñea bisitatzeko
txartelak salgai,
bihar arte

Altzoko jubilatuek, Amezketa-koekin batera, Iruñera egingo dute bisita igandean. 07:30ean aterako dira plaza-tik, eta 09:00ak aldera Hotel European kafea hartu ondoren Juan Alkorta bodegan hamaiketako egingo dute. Labastidan edo Iratzen bazkaltzeko asmoa dute, eta azkenik Iruñea bisitatuko dute. 25 euro balio ditu txartelak, eta izena udaletxean eman behar da, bihar baino lehen.

ALTZO ▶ HIRIGINTZA



Imaz Bertsolaría Eskola berria Santa Barbara eta frontoiaren artean eraiki dute. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Altzoko eskola berria ikasurte berriari hasiera emateko prest dago. Herriko ikasleek badute non liburuak behingoz utzi.

Aurten amaitu berri den kurtsua Altzoko ikasleek ez dute leku finkorik izan klase hartzeko, eskola berria eraiki bitartean. Dagoeneko, materialak eskola berrira eramantzen dituzte. Gurasoek eta hainbat langilek egin dute lekualdatzea, ekaina osoan zehar.

Azkenaldian udaletxe azpiko geletan bukatu zituzten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasketak.

Iazko maiatzan hasi ziren Imaz Bertsolaría eskolako obra lanetan, frontoiaren eta Santa Barbara ermitaren artean doan saihesbideotik jaitsita.

Berrogeita hamar ikasle inguru hasiko dira hurrengo iraillean ikasketak maila berrietan, eta baita ikasgela berrietan ere.

Eskola berria

Eskola berriak bi solairu ditu, eta orotara 760 metro karratu

Eskolaren behin betiko eraikina, prest

Herriko ikasleak udaletxe azpian egon
dira aurten klaseak jasotzen



Udaletxe lokal batzuetan hartu dituzte eskolak hilabete batzuetan. N. URBIZU

ESKOLA BERRIA

Bi solairu ditu, eta orotara 760 metro koadro. Beheran Haur Hezkuntzako gelak eta jangela izango dira

inguru ditu erabilgarri. Gela guztiak hegoaldera ematen dute. Beheko solairuan Haur Hezkuntza emateko bi gela daude, haietako bainugela eta guzti. 50 metro karratukoak dira. Kudeaketa gela ere behean egongo da.

Iparraldean sukaldea eta jangelak daude, 105 metro karratuko azalerarekin. Irakasleentzako bi komuna ere izango dira. Garbiketa gela, aldagela, biltegia nahiz kaldera-gela ere izango dira bertan.

Goiko solairuan Lehen Hezkuntzako mailak emango dira. Urteen arabera beharrei aurre egiteko beste hiru ikasgela txiki egokitu dituzte, 25 metro koadro ingurukoak. Balio anitzeko gela eta liburutegi eder bat izango dute, eta baita nesken eta mutilen komunak ere.

Igogailua jarri dute, edozein behar suertatuz gero, erraztasunak izateko.

Egun, kanpoaldeko gauzak txukuntzea falta dira, hala nola, patioa, eta hesia, baina irailera bukatuta izango direla espero dute.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Andoain. Altua, igogailuarekin. Egonela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Erabat eraberritua.

Trasteleku. Oso inguru onean. 44.000.000 pezeta. 943 69 68 56.

Andoain. Egonela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Sartzeko moduan. Berogailua. Kanpoaldera. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Erdigunea. 75 m2. Egonela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Berritzeke. Kanpoaldera. Balkoiak. 36.000.000 pezeta.

Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Erdigunea. Egonela, sukaldea, 2 logela eta bainugela.

Kalitatezko erreforma. 44.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. 47m2 erabilgarri dituen apartamentua. Sartzeko prest. Igogailuarekin. 29.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Egonela, sukaldea, 3 logela eta 2 bainugela. Igogailua. 46.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Guztiz eraberritutako pisu ederra. Hiru logela. Terraza. Kanpoaldera. 46.500.000 pezeta.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Hotela, kanpina, apartamentua, aterpea... Hainbat aukera daude egunak ebtekin kanpo pasatzeko, eta are gehiago oportetara bagoaz. Zein ostatu hartzen duzu zuk? Zein da gustukoen hartzen duzuna? Sartu gure web orrian eta parte hartu inkestan, botoa emanaz.

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmintatua. 635 74 52 91.

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. 677 32 99 34.

Haur zaintzailea. Neska euskaldun bat behar dut haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 638 185 205.

EUSKAL HERRIKO SEGA TXAPELKETA ▶

Hiru gazteluarrak eta asteasuarra, finalerdietara

Aranalde eta Gabirondo Larraitzen, Goikoetxea eta Alkorta Azkaraten sailkatu ziren; leitzarrak ez zuen txartelik lortu



Aranalde —ezkerrean— eta Goikoetxea —eskuinean— irabazi zituzten azken bi kanporaketak. HITZA

JAIONE ASTIBIA

Hilaren 23an Mañarian jokatuko dituzten bi finalurrekotan, hantxe izanen dira, azkenik, Mikel Aranalde, Andoni Goikoetxea eta Joxe Gabirondo gazteluarrak eta Mikel Alkorta asteasuarra. Laurak, asteburu honetan jokaturako kanporaketa saioetan sailkatu dira; Jon Kanflanka segalari leitzarrak, ordea, ez zuen hori lortzerik

izan, eta kanporatuta gelditu zen.

Larraitzen jokatu zuten kanporaketa bat; larunbat arratsaldean, eta 100 bat ikusle besterik ez zela, baina ikusmina bazen, ordea, Gabirondoren eta Aranaldere arteko lehiari dagokionez, herrialdeko txapelketaz geroztik —Gabirondo da txapelkun; Aranalde txapelkunorde—. Hirugarren lehiakidea Albizua bizkaitarra zen.

Ordu erdian belarra ebakitzen arituta, bi gazteluarrak izan ziren onenak, biek finalurrekoetarako txartela eskuratuz, saioa gazteak, Aranaldek, irabazi zuelarik.

Aranaldek berak atzo HITZARI adierazi zionez, irabazi izanagatik, eta Gabirondori irabazi izanagatik bereziki, «Gipuzkoako txapelketa bukatu zen eta hari begira egoterik ez dago», zioen, aurrera begira pentsa-

SAILKAPENA ▶

EUSKAL HERRIKO SEGA TXAPELKETAKO KANPORAKETAK Larraitzen.

	belar kiloak
1. Mikel Aranalde	1.371,5 kilo
2. Joxe Gabirondo	1.250 kilo
3. Kepa Albizua	1.044,5 kilo

Azkaraten.

	belar kiloak
1. Andoni Goikoetxea	1.347 kilo
2. Mikel Alkorta	1.231,5 kilo
3. Jon Kanflanka	1.192,5 kilo

*Bi taldeetan, lehenbiziko biak sailkatu dira finalurrekoetarako.

tzen jarrita dagoela esanez; «konfiantza lortzea falta zait», baieztatu zuen berak. Izan ere, finalurreko saioan izanen dituen arerioetan bere ustez «Lapazaran da txapela janzteko aukera gehien dituen» eta huraxe izanen du lehiakide, Alkortarekin batera.

Alkorta asteasuarra, berriz, Azkarateko kanporaketan sailkatu zen, bigarren, Andoni Goikoetxea gazteluarraren ondoren. Kanflanka leitzarrak ebaki zuen belar gutxien eta 39 kilogramatik, baina, lehiatik kanpo gelditu zen.

Leitzarra «prestaketetan baino urduiago» aritu omen zen segan, eta partzelekin ere ez omen zuen zorterik izan; berak azaldu zuenez, «belar-sail handiagoa ebaki genuen, ongi, eta aurrerako ote ginen ere iruditu zitzaigun; baina pisu gutxiago eman zuen, nonbait bakana goa egokitu zitzaigun eta». Nafarroakoan du saioa hurrena.

LEITZA ▶

Kaleetako arrastoak margotzen hastekoak dira

Bihartik aurrera jakinaraziko omen diete auzotarrei autoak kentzeko

ERREDAKZIOA

Bihar hasita, kaleetako arrastoak margotzen hastekoak direla jakinarazi dute Udaletik.

Zoruan ia urrututa edo zahartuta dauden zirkulaziorako arrastoak, alegia, zebra bideak, stop-ak, aparkalekuen markak eta beste, margotzen hastekoak omen direlarik, gaurtik biharrera auzotarrei jakinaraziko omen zaie, auzoz auzo lan hauek egin ahal izateko, auto eta bestelako ibilgailuak leku-tzeko eskaera, aintzat hartzea eskatuz.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebea: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe Tolosa: 652889
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egotiza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ KIROLAK

Urrutiak txapelkunorde egin du Nafarroako Harri-jasotzaile Txapelketan

Asteburuan Iruñeko Foru Enparantzan jokatu dute eta Patxi Larretxeak irabazi du txapela

ERREDAKZIOA

Larunbatean jokatu zuten Nafarroako Harri-jasotzaileen Txapelketa eta Josetxo Urrutiak azpitxapelkun gelditu zen, Patxi Larretxearen ondoren.

Sanferminetan herri kirolaren gune bihurtzen da Iruñeko Foruen Enparantza eta bertan jokatzeko dituzte herrialdeko hainbat txapelketa. Eta halaxe egin zuten harri-jasotzaileek ere.

Lau kirolarik parte hartu zuten bertan eta hiru harrirekin aritu ziren lanean, zeinek aldi gehiagotan jaso bakoitza, azkenik kilo totalen ariora erabakiz lehia. Hala, Larretxea saio guztietan gailendu zen eta txapela ere berak irabazi zuen: osotara 6.050 kilo jaso zituen, 125 kiloko zilindroari 23 altxal-di emanda; 112,5eko kubikoari 14; eta 100 kiloko bolari, 16. Urrutiak 4.825 kilo jaso zituen osotara, txapelkun baino



Urrutiak, Etxauriko harriarekin marka egin zuenean. HITZA

1.225 gutxiago, altxaldi gutxiago ere egin zituen eta saio desberdinetan: hurrenkera berean, 20; 10 eta 12.

Ondo samarretik jarraitu zion Urrutiari I.ak hirugarren gelditu zenak; harri handiena-

rekin, alde nabarmena izan bazen ere, 14 egin zituen aldaztarrak, beste bietan berdinduta gelditu baitziren.

Aitatu, iaz egin bazuen ere, aurtun Perurenak ez duela txapelketa honetan parte hartu.

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 260.a (2006ko uztailaren 7a).
Orrialdeak. 28.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. Xabier Usabiaga txirindulari ohi eta esatariarekin solasean.
Beste gaiak. Andazarrateko gaixo-etxea itxi zutela 50 urte bete dira, Agenda 21eko batzarra Adunan, Villabonako Garagardo Azokak 10 urte, San Pedro jaiak Asteasun, Amasa-Villabonako Amodiozko Gutunenean Lehiaketako sari-ematea, Zizurkilgo Koadrielen Eguna, agenda...
Argitaratzailea. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
 ▶ Kale Berria 47, 3. esk.
 ▶ 943 69 64 50
 ▶ aiurri@topagunea.com
 ▶ www.aiurri.com

AGENDA ▶

DEIALDIK

Ibarra. Bizi Nahi jubilatuta elkarteak irteera antolatuta du Belagoara (Nafarroako Pirinioak) bihar eta etzi, Hiru behien festa ikustera. Bazkaria Erriberrin, afaria eta hotela Zangozan. Prezioa: 115 euro. Izen-ematea, elkartearen.
Tolosa. Bide Ertzean Tolosako musika taldeak eta Cotti abeslari argentinarrek kontzertua eskainiko dute irailaren 9an zezen-plazan, Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak antolatuta. Sarrerak salgai daude Servikutxan, www.kutxa.net helbidean eta 943 00 12 00 telefono zenbakian.
Tolosa. Udaberri dantzari taldeak 2006-07 ikasturterako umeentzako dantza ikastaroak antolatuta ditu. Izen-ematea, Igarondo igerilekuaren ondoan (Igaralde), 17:00etik 20:00etara bitartean.
Tolosa. Andorrara mendi irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkarteak hilaren 22tik 25era, Coma Pedrosa eta Pic de Serrera igoz. Izen-ematea, elkartearen (Gudari kalea, 5, 943 65 27 89).
Tolosa. Harizpe jubilatuta elkarteak Fuengirolara

hamabost eguneko irteera antolatuta du irailerako. Mantenu osoa, 510 eurotan (516 eurotan bazkide ez direnek). Izen-ematea zabalik, elkartearen (Emeterio Arrese).
Tolosa. Iturriza jubilatuta elkarteak Bizkaiko kostaldera irteera antolatuta du abuztuaren 3rako, 25 eurotan (bazkide ez direnek, 27 euro). Izen-ematea, elkartearen.
Tolosa. La Jara elkarteak irteera bat antolatuta du Pilarikako zubirako (urria) Extremadurako hainbat leku bisitatuz. Alojamiento hiru izarretako hoteletan. Prezioa: 195 euro. Informazioa eta izen-ematea 675 70 76 19 telefono zenbakian.
Tolosa. Irailaren 16an Tolosan egingo den Euskal Herriko III. Graffiti Lehiaketan izen-ematea zabalik da Topagunea Euskara Elkarteen Federazioan (Arlozabal 8 bis, I.C. 48220 Abadiño-Bizkaia).

ERAKUSKETAK
Alegia. Miren Ortigaren margolanak. Hilabete osoan ikusgai, Jubilatuen tabernan.
Hernalde. Gregorio Lopezen

margolanak, Ostatuan ikusgai.
Tolosa. Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.
Tolosa. Iñaki Epelde, Jose Luis Longaron eta Carmen Mateo pintore tolosarren margolanak, Errota tabernan.
Zizurkil. Eskultura erakusketa, Olentzo jatebtxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK
Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi etxea. 112.
Tolosa. Ollarrea, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

IRRATIA
Txolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITzaren errepasoa, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoeta Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
 21:00-22:00. *Zaharrak berri*, Irulegi Irratiaren saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
 22:00-23:00. *Street noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 239.a (2006ko uztailaren 7a).
Orrialdeak. 26.
Tirada. 5.000 ale.
Gai nagusia. Udan ere, musikaz blai. Tolosaldeko musika Euskal Herrira zabaltzen.
Beste gaiak. Udan ere bai euskarari, Leidor aretoa, *Sua* filma, Saharako haurrak Tolosaldera iristear, Altzoko haurren txangoa, San Joan euritan blai, Joana Garmendia anoetarra eta Gorka Egia orendaindarra San Frantziskon (AEB), eskualdeko erremontistak...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
 ▶ Nafarroa etorbide, 6-behea.
 ▶ 943 65 50 04
 ▶ galtzaundi@galtzaundi.com
 ▶ www.galtzaundi.com

AGURRAK ▶



ZORIONAK
 Ioritz. Gaur 5 urte. Ondo igaro eguna. Maite zaitugunak. Muxu bat.

URTE ASKOAN
 Gorka Altuna Esnaola (Alegia). Gaur 8 urte. Zorionak ebekoen partetik eta, batez ere, anaia Unaiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA
 2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!

HELBIDERATU ZURE KUOTA

EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA

egunean 0,18 zentimoren truke buzoian